

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Behin egingo eta...

Lehendakariaren gabonetako mezua Berripaperean

Ekaitz Elorriaga

En estas fechas tan emotivas... esango luke Espainiako erregeak. Gabon deizuela guztioi... gure Urkulluk. Behintzat euskerazko mezuan. Queridos ciudadanos de la Comunidad Foral de Navarra, jada desagertua dabilkigun Yolik. Eta nik, nola hasi, hasiera hauek ere internet bidez lortu behar izan ditudanean, beti boikoteatu ditudalako?

Hasi ez dakit baina jarraitu bai. Urte hasierari ezin modu hobean ekin. Ongietorri Nura, Aiur, Xune... etorkizuneko bazkide berriak. Eskutik joan bitez nire barkamen eskaerak ere, Batzar Orokorrean egon ezinagatik arrazoi beragatik.

Urte emankorra badoakigu. Lehendik txapel bat jantzia zuen Manexek 2.a lortu zuen martxoan. Eskolarteko txapelketara Peru karratura joan ziren Oriora Arabako ordezkari, saio borobilak eginez, maiatzean. Uda bero zetorkigun, ez eguraldiagatik bakarrik. Estima ezina den lanari esker txosnagunea biziberritu genuen beste urte batez, ekonomikoki bultzada handia izan den emaitzarekin gainera. Lagundu zenuten, eta etzenutenoi, eskerrik asko bene-benetan. Plazer handia da horrelako pertsona taldearekin eskuz esku lan egitea. Eta hala ere, gehiago bagarela jakinda, eskua luzatua gera bedi, aurreragoko beharretarako.

Eta pixkanaka badoakigu urtea bukatzen. Erregearekin batera Baqueiran ospatzekoa nintzen baina behin pasaporte aterata, Kataluniako beste lurralde batzu ezagutzeko probestuko dudala uste dut. Beraz, ikusiko ez zaituztedan askori, urtea ederto has dezazuela. Bueltan ikusiko dugu elkar, Trebiñun, ofizialki Araba izan gabe egingo dugun azken egitasmoan: tokatzen den bezala, Kuadrilartekoaren aurkezpen eta Batzar Orokorrekin.



KOPLA

Cava botillak zabaldu eta izotzak urtuarazi: urtea ondo (mozkor) bukatu, berria hobeto hasi!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Neguan ere bertsoa! Abendutik abenturara!

Labrazan edo Indotxinan, berdin dio non, bertsoak jarrai dezala!

Uxue Diaz de Cerio



Bertsotan aritzeak barruak berotzen omen dituelako... Hotzak arintzeko abenduaren 28tik 30era ez duzu plan hoberik izango, haur edo gaztetxo hori, belarriak garbitu eta entzun adi!

Lautadako 8 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoak Arabar Errioxara joango gara. Bai Arabako eskualderik moreenera, ardoaren erreinura! Autobusa hartu eta arabar lautada atzean utzita, mendialdeko kurba eroak zeharkatu eta udazkenak hosto gabe biluzik utzitako mahastien paradisuraino egingo dugu bidaia, Labrazako akropoli gotorlekuraino hain zuzen ere.

Garai hartako gazteluaren zantzurik ez omen dago baina nork daki oraindik ere jauntxoren baten oinordekoren bat bizi ote den paraje eder horretan. Erdi Arora egingo dugu salto trobadore eta profazadoren bizimodu eta poesia ezagutzera, bertako laberinto itxurako kale, bidezidor eta herriko plazan jolasean murgilduko gara. Diotenez herritik oso gertu dagoen

Mairuen iturria, garai bateko harresi itxiaren barnealdera sartzeko sarrera sekretu bat omen zen. Inguruak piskat arakatu ezker... Agian tunel sekreturen bat aurkituko dugu!

Beraz badakizu laguntxo, etxean dagoen maletarik handiena hartu, neguko arropa lodia eta bazpare elurretarako katiuskak sartu, galtzontzilo eta kuleroak ez ahaztu eta badaezpada katua eta amona ere barnean sartu! Batek daki han beharko dituzun ala ez...

Ez duzula oraindik izena eman...

Ba hartu telefonoa eta jarri gurekin harremanetan, 945 010505 edo 688616531 telefonora deituz edota nahiago baduzu araba@bertsozale.eus emailera mezu bat bidaliz.

Eztarriko korapiloak askatu eta zatoz Erdi Aroko bertso gregoriano arabarrak kantatzera!

Animatu eta etorri gurekin ederki pasatzera. Ez zara damutuko! Damutzen bazara amona eta lora itzuliko dizkizugu lagun!

41 minutu, 41 inkesta, 41 motibo

Olatz Perea

Bertsolari txit agurgarria, 41 minuto ba al dituzu galderatxo batzuei erantzuteko??

Arabako Bertsolariei inkesta hau egin zaie: Zein da zure bertsolari gustokoena? Nori bidaliko zenioke maitasun bertso sorta? Potoekin egiten al duzu amets? Trikimailurik ba al duzu?

Ez galderak ez dira horiek izan, inkesta pixka bat serioagoa izan da: Ze maiztasunez elkartzen zara bertso eskolan? Zeintzuk dira zure helburuak aurrera begira? Euskal herriko finalean kantatu nahiko zenuke?

Erantzunak ask: lagun artean gustorago kantatzen dut, Euskal Herriko txapelketa da nire helburuetariko bat, ondo kantatu ta entzulegoa gustora egotea nahiko nuke, bertso eskola faltan botatzen dut ...

Pentsaera, bizitza eta adin ezberdinak daude, baina jasotako 41 inkestek erakusten duten bezala, gogoia eta motibazioa dago denengan.

Bertsolarien bizitzan eta lerro hauek irakurtzen ditugun guztiongan, bertsolaritzak oroitzapen ahaztezinak utzi dizkigu: poto madarikatu hura, saio perfektu hura, txapelketak, topaketak, afariak, lagunak, mozkorraldi bat edo beste...

Bertsolaritzak, euskalduntzen gaitu, lagun giro batean murgiltzen gaitu, adierazpen askatasuna ematen digu, barruko garra pizten digu eta batzen gaitu.

Atzetik datozenak, edabe magiko beretik edan dezatela, 41 motibo baitaude bertso munduan murgiltzeko.

Eta kontuz ibili, hurrengo inkestaren biktima zu izan zaitezke eta...

%90ak BEra joateko asmoa du

%73a astean behin elkartzen da

%50ak EHko txapelketan kantatu nahi du

%80ak Arabako txapelketan kantatu nahi du

Lautadako bertso-eskola

Bombo bat baino gehiago!

Duela bost urte inguru, oso hurbileko Herriko Tabernan batean, Zalduondoko bi gazte Dragoi Bolako pertsonaiez mozorrotuta zeuden. Halako batean tribu bateko gerlari india bat agertu zitzaien, esku batean aizkora, bestean zurittoa eta luma buruan zituela.

-Aupa, Nahi duzue egin bertso eskola bat? Galdetu zien,

-Bale! Erantzun zuten Son Goku eta Krilinek.

Eta horrela hasi ginen elkartzten, ez genuen irla txiki batean Iratxo Dortoka maisuarekin entrenatu, baizik Zalduondoko Zeledon Toki elkartearen, Sorgin andereñoekin, gerora piraten erregina izendatuko genuena. Urteak joan dira harrezkero, eta Aramaiokoiei erantzunez, bonboa gure gerrarako danborra da, guda hotsa lau haizetara zabaltzeko erabiltzen duguna. Ozaetako Santxak behinola abestu zuena moldatuz: "hartuko dugu esku batean bonboa, bestean mikro iratxegia eta erreko dugu Aramaio guzia". Beraz, bai, abestu abesten dugu, ondo afinatzen dugun... beste kontu bat da!

Zalduondotik, Agurainera zabaldu ginen, Lautadako inperio txikia hedatuz. Han ume, gazte eta ez hain gazteak elkartzten hasi ginen. Inguruko herrietakoak ere jasotzen ditugu, eta gaur egun bi hiriburu ditu bertsoak Lautadan.

Urtero hainbat saio antolatzen ditugu, A mailako bertsolariak borrokatu egiten dira gurekin abesteko, eta horregatik "Lautadarrak Lautadan" tarifa atera zuen LANKUK, eta Zeledonek dinosauroak ekartzen dizkigu, mendiz haraindiko herri batetik. Neguan, Negulekuak egiten ditugu Barrian, elur artean jostari, eta Udan Otazako baserria okupatzen dugu, arto artean kantari aritzeko.

Aurten, "egitasmu" berria jarri dugu



martxan, bertso-afari-eskola. Lautadako lkerkuntza departamentuko inteligentzia arduradunak dionez "hau da modu bakarra guztiok elkartu eta bertsotan aritzeko, euskaldunon jatorri antropologikoan baitago janaria eta kantua uztartzea".

Erronka bat ere badugu Lautada aldean (ABEtik sustatua), gure bertso grina hedatu eta zabaltzea (honi deitzen zaio inperialismoa).

Urteak daramatzagu Agurain eta Zalduondotik atera nahian, Lautadako beste herri batzuk konkistatzera. Dulantzi edo Araia, zergatik ez? Baina komunikazio arduradunak ez dugunez, eta watsapeko mezuei monosilabo bidez erantzuten diegunez, gaizki ulertu batek uste baino urrunagora eraman gaitu, urtegiko

mugetaraino hain zuzen ere, irakasleak behar zituztela edo. Ezta Legutio? Zer moduz doa handik bertso eskola?

Hurrengo Berri Paperean Legutioko bertso-eskolaren artikulua.



AGENDA!

Abenduak 18 ARGANTZUN	BERTSO SAIOA	Siloan, 19:00 Haurrentzat bertso-saioa: Ruben Sanchez, Ander Solozabal Antolatzailea: Argantzungo Udala
Abenduak 18 URBISU	BERTSO AFARIA	21:30 Jone Uria, Izar Mendiguren Antolatzailea: Mendialdeko Bersto-eskola
Abenduak 18 GASTEIZ	BERTSO POTEOA	Lorategi tabernatik hasita, 18:30 Antolatzailea: Aranbizkarrako Euskharan Elkartea
Abenduak 22 ELOSU	BERTSO POTEOA	Soziedadean, 19:00 Oihane Perea, Ruben Sanchez Antolatzailea: Elosuko Administrazio Batzarra
Abenduak 26 ARAMAIO	BERTSO SAIOA	Kultur etxean, 22:30 Andoni Egaña, Manex Agirre, Jexux Mari Irazu, Iñaki Viñaspre Gai-jartzailea: Marta Ugarte Antolatzailea: Aramaioko Udala, Aramaioko Bertso-eskola

ZERNAHI

HAU ERE EZ DA SERIOA! ;-)



Xabi Igoa

-Ei Iker, Oionetik deitu didate kantura joan gaitezen.
-Goazen ba.

Behin Oionera heldu eta...
-Guk abestu dezagun, zera behar dugu: Aulki eroso batzuk, erretzeko zerbit, mikrofono inalambriko bat, muletak eusteko zerbit... Eta Oioneko bertso-eskolako pertsona zintzoek dena eman, bi "pendejo" hauek etxeko sofán bezala egon zitezten.

Jakin, gurera etortzen bazarete (oraindik zuen sarrera baloratzen gaude) asko jota eskoba kirtena izango duzuela, bertsoak behar du exigente, ez bertsolariak.

HAURRENTZAKO
BERTSO-SAIOA
ACTUACIÓN DE BERTSOS PARA NIÑAS/O'S
Abenduak 18 Diciembre
ARGANTZUN / La Puebla
Siloan 19:00 en el Silo
Bertsolariak: Ander Solozabal eta Ruben Sanchez.

BERTSO-AFARIA
URBISUN
abenduak 18, ostirala 21:00
Bertsolariak: **IZAR MENDIGUREN** (8€), **JONE URIA** (15€)
afaria + kafea + kopa
LARGABETU, IRASLE ETA TREKARROAK
apuntatzeko: kultur@urbisu.com / 665 121 500 (whatsapp)

BERTSO-PINTXOPOTE
ETA
ARDO GOXOA
ABENDUAK 22 DICIEMBRE
19:00
ELOSUKO SOZIEDADEAN

GABONETAKO BERTSO SAIOA
Abenduak 26, Kultur etxean 22:30tan
Bertsolariak: **Andoni Egaña**, **Jexux Mari Irazu**, **Iñaki Viñaspre**, **Manex Agirre**
Gai-jartzailea: **Marta Ugarte**